

## 26. ALDIZKARIA - 2024ko otsailaren 5a

### NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOA

#### 2024ko aurrekontua. Behin betiko onespena

Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluak, 2023ko azaroaren 17an egindako bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2024ko aurrekontu orokor eta bakarra eta hura betearazteko oinarriak. Iragarkia 2023ko 254. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 11an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasiera batean onetsitako aurrekontua Partzuergoaren egoitzan (Barañaingo etorbidea 22, Iruña) eta Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoko web-orrian egon da ikusgai.

Jendaurreko epea pasa eta inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onesten da Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoaren 2024ko aurrekontua.

Hona hemen haren laburpena, kapituluka.

#### DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua.–Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 15.280.022,55 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 15.280.022,55 euro.

#### GASTUAK:

1. kapitulua.–Gainerako langileriaren gastuak (Idazkari eta Kontu-hartzaile gastuak): 27.185,34 euro.

2. kapitulua.–Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 13.368.809,65 euro.

4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 735.056,62 euro.

6. kapitulua.–Inbertsio errealak: 227.530,00 euro.

7. kapitulua.–Kapital-transferentziak: 921.440,94 euro.

Gastuak, guztira: 15.280.022,55 euro.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an.–Partzuergoko burua, Óscar Chivite Cornago.

Iragarkiaren kodea: L2401010